

# ABERÁSTURI

— ARABA / ÁLAVA —

Gasteiztik 8 kilometro ekialdera, N-104 errepidek egiten da hiritik harako sarbidea, Elorriagan A-132 bidea hartu eta eskuinetara eginez, Askartza atzean utzita. Argandoñara heldu orduko, A-4119 errepideak artezean garamatza Aberasturira.

Reja izeneko dokumentuaren arabera, Done-miliagako monasterioari hiru golde-burdina emanen zizkioten ordainetan Uriarte, Argandoña, Petrikiz, Askartza eta San Roman herriekin batera. Hain zuen ere, dokumentu horrexetan ageri da *Haberasturi* izena. Diotenez, Artxidiakonoaren barrutiko 1295eko batzarrean bertako zazpi beneficiodun bildu ziren.

Situado a 8 km al este de Vitoria, el acceso desde la ciudad se realiza por la carretera N-104, desviándose a la derecha en Elorriaga por la A-132, hasta dejar atrás Ascarza. Antes de llegar a Argandoña, la carretera A-4119 nos lleva directamente a Aberásturi.

Según el documento de la Reja, pagaba al monasterio de San Millán tres rejas de hierro junto a Uriarte, Argandoña, Petríquiz, Ascarza y San Román, y en este documento se le denomina *Haberasturi*. A la reunión del Arcedianato de 1295 asistieron siete beneficiados de este lugar.

## *San Esteban eliza / Iglesia de San Esteban*

**A**BERASTURIKO PARROKIA XVI. mende hasierako eraikina da. Saloi-oinplanokoa da, zortzialdeko burualdea du eta nabe bakarra, bi kapera erantsita presbiterioaren alde banatan. Oso elizpe interesgarria du, Justo Antonio Olaguibel arkitekto gasteitzarrak XIX. mendearren hasieran egina. Hamaika zutabe joniko ditu, Narbaxako harriz eginak eta lirain askoak.

Aztarna errománikoei dagokienez, nabarmentzeko da portada, erdi-puntuko lau arkibolta baititu. Inguruko herrieta azaltzen diren arku zorrozdunak baino lehenagokoak dira, beraz. Barruko arkibolta laua da, leiho-zangoen gainean bukatua; bigarrenak, berriz, akanto orriak ditu apaingarri, kanporantz irtenak. Hirugarrena baketoi laukoa da, eta kanpoaldekoa, bukatzeko, ertz bizikoa. Barruko leiho-zangoen inposta elkar bilbatutako zurtoinez dago apainduta; bola dekoratuak ditu erdiko guneetan, eta perlak gainerakoetan.

Zutabe artean dagoen inposta, berriz, orri irteneko zurtoin ondulatuz dago apainduta. Ezker aldeko kapitelek elementu hauek dituzte, kanpotik barrura begiratuta: foliolos alboetan, anana irudia angeluan zintzilik, eta kiribildurak goiko aldean; giza aurpegí bat, oso laua; eta hosto estilituak, angeluan anana irudia daramatela. Eskuin aldeko kapitelak XX. mendeko bigarren hamarkadan landu zituzten, portada berritu egin baitzuten orduan. Zutabeotako fustea lauak dira, eta harroinetan, atzapar irudiak ageri dira.

**L**A PARROQUIA DE ABERÁSTURI es un edificio de comienzos del siglo XVI de planta de salón, cabecera ochavada y una sola nave con dos capillas posteriores adosadas a ambos lados del presbiterio. El pórtico es muy interesante, obra del arquitecto vitoriano Justo Antonio de Olaguibel, de comienzos del XIX, y presenta once columnas jónicas muy esbeltas labradas en piedra de Narvaja.

En cuanto a vestigios románicos, destaca la portada, con cuatro arquivoltas de medio punto, que refleja una tradición anterior a la de las portadas apuntadas de poblaciones cercanas. La arquivolta interior es lisa y descansa sobre las jambas; la segunda se decora con acantos con las puntas vueltas hacia afuera; la tercera es de baquetón liso, y la exterior de arista viva.

La imposta de las jambas interiores muestra tallos entrecruzados, bolas decoradas en los espacios centrales y perlas en los restantes, mientras que la imposta situada sobre las columnas se decora con tallos ondulados con hojas salientes. Los capiteles del lado izquierdo muestran, de fuera adentro, foliolos a los lados con una piña pendiente en el ángulo y volutas en la parte superior; un rostro humano muy plano; y hojas muy estilizadas con piña en el ángulo. Los capiteles del lado derecho se labraron en la segunda década del siglo XX con motivo de la restauración de la portada. Los fustes de las columnas son lisos y las basas presentan garras.



*Portada*

*Portada*



*Portadako kapitelak*

*Capiteles de la portada*

Portadaz gainera, elizaren hegoaldeko horman antzinako eraikin errománikoaren aztarnak ageri dira: elizpearen gainean erdi-puntuko arku bat dago, eta zehatz ebakitako harlandu batzuk ere, gainerako harrien artean gailendurik. Nabarmentzekoa da baita dorrea ere: errománika du hasierako egitura, baketoidun izkina eta gezi-leihoekin.

Testua eta argazkiak: REA

Además de la portada, en el muro sur de la iglesia se pueden encontrar restos de la primitiva construcción románica: sobre el pórtico se aprecia un arco de medio punto y varios sillares bien cortados que destacan entre el resto de la piedra. Importante es también la torre, románica en su primer cuerpo, con las esquinas baquetonadas y saeteras.

Texto y fotos: REA

#### *Bibliografía / Bibliografía*

CASTRO, C. de, 1915, pp. 121, fig. 33; LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, p. 235; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1988a, pp. 482-486; PORTILLA VITORIA, M. J. et alii, 1975, pp. 139-141, fig. 160, 162; VEGAS ARAMBURU, J. I., 1985, pp. 60-62.